

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Tronpeta, flauta, perkusio eta biolin kontzertua ostegun honetan Fernando Remacha Auditorioan

Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarrera debalde izango da, aretoa bete artean

Asteartea, 2018.eko martxoak 13

Ostegun honetan, hilak 15, Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako III. Interpretatzaileen zikloaren zortzigarren kontzertua izango da. Oraingoan, Javier Garín, tronpeta-jotzailea, Ane Alberdi flautista, Beatriz Vallejo perkusio -jotzailea eta Aizbeltz Bulza biolinista izango dira protagonistak. Kontzertua 19:30ean hasiko da eta sarrera doakoa izango da, aretoa bete artean.



Javier Garín, Ane Alberdi, Beatriz Vallejo eta Aizbeltz Auza.

Kontzertu honetan besteak beste H. Tomasik tronpetarako sortutako obrak, Alessandro Marcelok flautarako sortutakoak, Hugo Morales eta David Langek perkusiorako konposatutako lanak, zein W.A Mozartek biolin eta orkestarako garatutako obrak entzuteko aukera izanen da.

Errezitaldi hau Nafarroako Goi Mailako Musika Eskolako 4. mailako ikasleen lana ezagutzera emateko zikloaren baitan antolatu da kontzertua. Eskolako arlo klasikoko ikasleek parte hartzen dute, esku-soinu, bonbardino, kantu, klarinete, fagot, flauta, gitarra, oboe, organ, perkusio, piano, saxofoi, tronpeta, tuba, biolin, biola eta biolontxelo jotzaileek. Kontzertuetan ikasleek Miguel Ángel Aguirre, Leyre Lisarri, Michel Reynoso eta Cesar Vallejo piano-jotzaileen laguntza izango dute.